

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 32. BILERA AKTA

**EGUNA: APIRILAK 22, LARUNBATA**

**ORDUA: 9:30**

**TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA**

### **BERTARATUAK**

GURE ARRANO ELKARTEA  
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
GEROA BAI  
IRAIN ESKOLA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO ABESBATZA  
LESAKAKO MUSIKA BANDA  
LESAKAKO SOINULARIAK  
TRIKITIXA ELKARTEA  
EH BIDU TALDEA

Bertaratuen artean ordezkari berri bat agertzen da eta Ibanek laburpen azkar bat egiten dio bilgunearen dinamikaren inguruan.

### **AINTZINAKO AKTA ONARTZEA**

Onartzen da.

Ibanek gai ordena aipatzen du eta eragozpenik ez bada, hirugarren puntutik hasiko dela aipatzen du.

### **HAMAR URTE HAMAIIKA DINAMIKA**

Ibanek emanaldi guztiekin eginiko taula erakusten du. Orain arte egin direnen emaitzak azaltzen ditu. Hauen erreposoa egin ondoren eta kontutan izanda momentuz hamar dinamika daudela itxita, udalara ailegatu den proposamen baten berri ematen du. Iban Carmona, Suakai taldeko kideak, proposamen bat egin dio udalari, beraien proiektu bat Lesakako txoko berezi batean egitea. Proposamen hau hamaikagarren dinamika bezala sartzea planteatzen du eta denen artean sartzea adosten da.

### **KULTUR AZOKA**

Hasierako ideai laburbilduta planteatzen da, zertarako, noiz, non, norentzat, nola... jendea erakarri kulturara. Usurbilgo azokako bideo bat ere ikusten da, haien esperientzia ikusteko.

Azoka talde motorea bildu da (Iban, Eneko, Estitxu, Mattane) eta hasierako zirriborroa planteatu da;

- Ordutegia 11:00etatik – 14:30etara
- Merkatu ttikiarekin batera (hauel Beheko plaza betiko lekua mantenduko dute)
- Emanaldiak azoka garaian eta/edo arratsaldean

Arratsaldean emanaldiak egitea zaila ikusten da, beraz dena goiz-eguerdiko garaian egitea erabakitzen da. 1.000 euroko aurrekontua badago, girotzeko erabiltzen ahal dena.

Herriko bertze sortzaileei zabaltzea edo ez planteatzen da. Ongi ikusten da, zuzenean erran eta baita bando bidez edo inor kanpoan ez gelditzeko.

Azoka plazan eginen da bino eguraldi txarra egiten badu pilotalekua erabiliko da.

Mahaiak Beti-Gaztekoei eskatu beharko dira.

Maiatzaren 13an bilera egitea proposatzen da.

### **AGENDA**

Iraila arteko ekitaldiak errepasatzen dira.

### **KEZKAK ETA GALDERAK**

Dirulaguntzen esleipenaren inguruan galdetzen da. Astelehenean edo ebazpena egin eta jakinaraziko da.

Hurrengo bilera, ekainak 3, 9:30etan